


# SEED CAPITAL BIZKAIA MIKRO

## *Mikrokreditu-eskaera Online*

ERABILERA-GIDA



MikroETEetarako Mikrokredituak  
Microcréditos para MicroPYMES



With the support of the European Investment  
Fund under the InvestEU Fund

**Bizkaia**  
seed capital  
mikro

- Eskaera egin ahal izateko, enpresa onuradun izateko baldintzak bete behar dira. Eskaera euskaraz eta gaztelaniaz egin ahal izango da.
- Erabiltzaileak identifikatzaile gisa erabiliko duen posta elektronikoa izango da Seed Capital Bizkaia Mikroren erreferentea, mezu elektronikoak eta informazioa bidaltzeari dagokionez.
- Eskaera behar bezala amaitu ahal izateko, beharrezkoa da galdera guztiei erantzutea, beharrezko dokumentazio guztia aurkeztea, DPL onartzea eta erantzukizunpeko adierazpena onartzea. Horrela bakarrik aktibatuko da “Eskaera bidali” botoia.

ESKAERA BIDALI

- Erabiltzaileak behin edo behin baino gehiagotan bete ahal izango du eskaera. Eskaeran sartzen den bakoitzean, azken saioan gorde zuten bezala egongo da.
- **Hainbat galdera mota daude:**
  - » **Irekiak**, horietan testuarekin edo zenbakiekin erantzun behar da, eta ez da inolako eskakizunik egongo.
  - » **Irekiak, gutxieneko karaktere kopurua eskatuta.** Galdera horietan, eskatzaileak gutxienez eskatzen den karaktere kopuruarekin (letrak, tarteak, zenbakiak, etab.) erantzun beharko du galdera; bestela, galdera ez da osatutzat joko.
  - » **Aukerak dituzten galderak.** Planteatutako aukeretako bat hautatu behar da gutxienez.
  - » **Hainbat aukera dituen zenbakizko erantzuna duten galderak.** Bat aukeratu behar da.
  - » **Datari buruzko galderak:** Datarekin edo egutegi baten bidez erantzuteko aukera.
  - » **Baldintzapekoak**, hauetan “ez” aukera hauta daiteke, eta horrela galdera osatutzat emango da, edo “bai”, eta horretan galderari buruzko xehetasuna eskatzen da.

EZ  BAI

Bete eremua\*

- Galdera bakoitzean, erantzuteko modu zuzena azaltzen duen “i” ikono bat dago.

5 zenbaki, tarte eta gidoi barik.



- Gutxieneko karaktere kopurua eskatzen duten galderetan, ezinbestekoa izango da baldintza hori betetzea, galdera behar bezala erantzuntzat eman ahal izateko. Karaktereak letrak, espazioak eta sinboloak dira. Baldintza hori ezin izango da saihestu esaldiak errepikatuz, zuriuneak utziz, gidoiak jarritz eta abar. Seed Capital Bizkaia Mikrok “erantzun gabeko” galderatzat hartu ahal izango du horrelako zerbait egin dela ikusten badu.
- Galdera guztiei ezingo zaie gauza bera erantzun, horrela galdera guztiei erantzuteko baldintza betetzeko. Seed Capital Bizkaia Mikrok “erantzun gabeko” galderatzat hartu ahal izango du horrelako zerbait egin dela ikusten badu.
- Erabiltzaile batek galdera bati zuzen erantzuten dionean, sinbolo bat aktibatuko da, zuzena dela adieraziz. Eskaera amaitutzat eman eta entregatzeko, ezinbestekoa izango da eskatutako galdera eta dokumentu guztiak baliozkotuta egotea.

IFZ

- Fitxategiak edozein formatutan igo ahal izango dira, konprimituak barne (ZIP eta RAR).
- Eskaera behar bezala amaitu ondoren, bidaltzean, erabiltzaileak mezu elektronikoa bat jasoko du bere eskaera-zenbakiarekin, eta hori izango da eskaeraren erreferentzia prozesuan.

→ Enpresari eta ordezkaritari buruzko galdera orokorrak:

## Eskatutako zenbatekoa

Enpresak Seed Capital Bizkaia Mikrorri eskatzen dion maileguaren zenbatekoa.

## Sozietatearen izena

Enpresaren izen soziala, Bizkaiko Merkataritza Erregistroan edo Eusko Jaurlaritzako Kooperatiben Erregistroan agertzen den bezala.

## IFZ

Enpresaren IFZ sartu, espazio eta gidoi barik. A, B edo F letrekin hasi behar da, eta, ondoren, 8 digitu.

## Izen komertziala

Enpresak erabiltzen duen izen komertziala. Halakorik ez badu, sozietatearen izena sartu.

## Egoitza soziala

Bizkaiko Merkataritza Erregistroan edo Eusko Jaurlaritzako Kooperatiben Erregistroan agertzen den egoitza soziala.

## Posta-kodea

5 zenbaki, tarte eta gidoi barik.

## Udalerrria

Sozietatearen egoitzaren udalerrria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egon behar du.

## Lantokia

Sozietatearen jarduera nagusia egiten den lekua. Sozietatearen izenaren berdina bada, “Sozietatearen egoitza bera” aukera hautatu behar da. Besterik bada, aukeratu “Helbide soziala ez den beste bat” eta adierazi non dagoen (kalea, ataria, posta-kodea, udalerrria...)

## Eraketa-data

Sozietatearen hasierako eraketa-data adierazi, eratze-eskrituraren arabera.

## Kapital Soziala

Adierazi enpresaren Kapital Soziala.

## EJSN

Adierazi enpresaren EJSN (Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala) nagusia.

[Ikus EJSNen eranskina](#)

## Jarduera

Enpresaren jarduera nagusia azaltzen duen xehetasuna.

## Webgunea

Adierazi enpresak webgunerik duen.

Bai → Enpresaren webgunearen helbidea.

Ez

## → Enpresari eta ordezkariari buruzko galdera orokorrak:

### Enpresaren egungo plantilla

1-10 langile izan behar ditu, lanaldi osoko urteko baliokideetan. Besteen konturako langileen kopurua adierazi, lanaldi osoko urteko baliokideen arabera. Plantillako kideetat hartuko dira Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartutako lan-kontratua duten pertsonak. Kooperatiben kasuan, bazkide langileak ere sartzen dira atal honetan. Adibidez, lanaldi osoa duen pertsona batek 1 gisa zenbatzen du, lanaldi erdian dagoen pertsona batek 0,5 gisa, etab. Zenbaki osoetara edo ertainetara doitu.

### Banku-kontuaren zenbakia (IBAN)

Mailegua ordaintzeko eta kuotak kargatzeko banku-kontua. ESren ondoren 22 digituak sartu behar dira, espazio eta gidoi barik.

### Enpresa hauen barruan dago:

Adierazi zein talderen barruan dauden enpresa eta jarduera. Proposatutako aukeren artean bat, bi edo hiruak hautatu behar dira:

- » Bost urtera arteko antzintasuna duten **teknologia arloko startup-ak**, sustatzaileetako batek gutxienez dedikazio eskusiboa duenean. Sortu berri diren enpresa berritzaileak eta teknologikoak.
- » **Industriaren sektoreko mikroenpresak, industriarekin lotutako zerbitzuak eta zerbitzu aurreratuak.** Jarduera nagusia zerranda honetan duten enpresak:

→ [Ikus EJSNen eranskina](#)

- » **Gizartean eragina duen jarduera nagusia duten mikroenpresak.** Gizarte- eta ingurumen-erronkak lantzen dituzten enpresak, hala nola osasunaren, hezkuntzaren, gizarte- eta lan-bazterketako egoeran dauden pertsonen sustapenaren, jasangarritasuna sustatzen duten proiektu berritzaileen, eta abarren arloetan.

### Enpresaren ordezkaria

Sozietatearen ordezkariaren izena eta bi abizen (abizen bakarra izanez gero, berau adierazi). Pertsona horrek ordezkari izateko gauzatzeko gaitasun juridikoa izan behar du (administratzaile bakarra, administratzaile solidarioa, ahaliduna, kontseilari ordezkaria, etab.). Administratzaile mankomunatuak dituen enpresa bada, nahikoa da atal honetan horietako baten izen-abizenak adieraztea.

### NAN/AIZ

Ordezkariaren indarreko NAN edo AIZ. Letrak eta zenbakiak sartu beharko dira, tarte eta gidoi barik.

### Harremanetarako telefonoa edo mugikorra

Erreferentziako telefonoa edo mugikorra Seed Capital Bizkaia Mikro enpresarekin edo ordezkariarekin harremanetan jartzeko, komunikazioak edo kontsultak egiteko.

### Kargua

Enpresan betetzen duen kargua.

## *Enpresaren jarduera.*

### **1.1 Enpresaren jardueraren deskribapena** (gutxienez 500 karaktere).

Enpresaren jarduera nagusia eta egiten dituen bigarren mailako beste jarduera batzuk zertan datzaten azaltzea, gutxienez 500 karaktere erabilita.

### **1.2 Enpresak eskaintzen dituen produktu edo/eta zerbitzuen azalpena, eta baita negozio-lerroen azalpena ere** (gutxienez 500 karaktere).

Enpresak ekoizten, egiten edo eskaintzen dituen produktuak edo/eta zerbitzuak azaltzea, gutxienez 500 karaktere erabilita. Sozietateak bere enpresa-jardueran egiten dituen negozio- eta jarduera-lerroak adieraztea, nagusiztat jotzen direnak azpimarratuz.

### **1.3 Enpresaren egungo egoeraren azalpena** (gutxienez 500 karaktere).

Zein den enpresaren egungo egoera, eta era berean, zer bilakaera- edo/eta hazkunde-fasetan dagoen azaltzea, gutxienez 500 karaktere erabilita. Enpresak zer arazo, erronka eta aukerari aurre egin behar dien ere azaltzea.

### **1.4 Enpresa lanean ari al da produktu, zerbitzu edo negozio-lerro berriren batean?** (bi aukera daude hautatzeko).

Enpresa produktu edo zerbitzu berri batean lanean ari ez bada, hautatu “ez” aukera. Hala egiten ari bada, “bai” aukera hautatu eta jarduketa horiek zeintzuk diren xehetasunez adierazi eta azaldu.

### **1.5 Arlo honi buruzko informazio gehiago eman nahi al duzu?**

Enpresak ez badu enpresaren jarduerari buruzko informazio gehiago eman nahi, “ez” aukera hautatu. Informazio gehiago eman nahi izanez gero, hautatu “bai” aukera eta zehaztu eta zabaldu arlo horri buruzko informazioa.

## Talde sustatzailea eta enpresako langileak.

### 2.1 Talde sustatzailea.

Talde sustatzailea osatzen duten pertsonen xehetasuna, eta baita haiek enpresan dituzten eginkizunak, zereginak eta erantzukizunak ere.

### 2.2 Aipatutako plantillatik, zenbat dira emakumeak?

Besteen konturako langileen kopurua adierazi, lanaldi osoko urteko baliokideen arabera. Plantillako kideztat hartuko dira Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartutako lan-kontratua duten pertsonak. Kooperatiben kasuan, bazkide langileak ere sartzen dira atal honetan. Adibidez, lanaldi osoa duen pertsona batek 1 gisa zenbatzen du, lanaldi erdian dagoen pertsona batek 0,5 gisa, etab. Zenbaki osoetara edo ertaintetara doitu.

### 2.3 Enpresako plantilla osatzen duten pertsonen eginkizunak azaltzea (gutxienez 300 karaktere).

Enpresako plantilla osatzen duten pertsonen lan-funtzioak gutxienez 300 karaktere erabilita azaltzea, eta sail edo arlo bakoitzean (zuzendaritza, ekoizpena, merkataritza, administrazioa, I+G+b, ingeniariaritza, etab.) zenbat aritzen diren adieraztea. Enpresaren eta Giza Baliabideen antolaketa-sistema azaltzea.

### 2.4 Giza baliabideen etorkizuneko aurreikuspenak. Urtebeteko epean enpresak langile kopurua murrizteko, kontserbatzeko edo handitzeko asmorik duen azaltzea (gutxienez 300 karaktere).

Enpresako plantillak urtebeteko epean izango duen bilakaeraren aurreikuspena azaltzea, gutxienez 300 karaktere erabilita. Adierazi sozietatea langileak hautatzeko prozesuan dagoen edo langileen kontratu-baldintzak aldatzeko asmoa duen (kontratuak berritzea, kontratuak ez berritzea, lanaldiak luzatzea, etab.).

### 2.5 Arlo honi buruzko Informazio gehiago eman nahi al duzu? (bi aukera daude hautatzeko).

Enpresak ez badu talde sustatzaileari eta enpresako langileei buruzko informazio gehiago eman nahi, "ez" aukera hautatu. Informazio gehiago eman nahi izanez gero, hautatu "bai" aukera eta zehaztu eta zabaldu arlo horri buruzko informazioa.

## *Merkatua eta merkaturatzea.*

---

### **3.1 Enpresak lan egiten duen merkatuaren definizioa eta ezaugarriak** (gutxienez 500 karaktere).

Enpresak zein merkatutan edo merkatuetan jarduten duen eta zein diren haien ezaugarri nagusiak (eskaintza, eskaria, lehia, tamaina, egungo egoera, bilakaera, aurreikuspenak, etab.) azaltzea, gutxienez 500 karaktere erabilita.

---

### **3.2 Enpresak jarduten duen eremu geografikoa.**

Enpresak merkaturatzen, saltzen eta lan egiten duen eremu geografikoak zehaztea (Bizkaia, Euskadi, Espainia, Europa...), eta baita sozietatea nazioartekotze-prozesuan murgilduta dagoen ere.

---

### **3.3 Enpresaren xede diren bezeroen ezaugarri nagusiak** (gutxienez 300 karaktere).

Produktuaren edo zerbitzuaren hartzailerik diren bezeroen ezaugarri eta berezitasun nagusiak azaltzea, gutxienez 300 karaktere erabilita. Hauek enpresak, administrazio publikoak, profesional independenteak, pertsona fisikoak... diren adieraziz. Modu berean, bezero horien kontsumo-ohitura zehaztea.

---

### **3.4 Bezero nagusien xehetasuna. Adieraz ezazu zein enpresa, administrazio publiko eta abar dauden zure laneko zorroan.**

Adierazi enpresaren portfolioaren parte diren enpresa, administrazio publiko eta bezero nagusien izenak. Era berean, horietako batzuekin lankidetzaharremanik duzun ala bezero estrategikoak diren zehaztu.

---

### **3.5 Konpetentzia nagusiaren xehetasuna eta enpresak konpetentzia horri aurre egiteko dituen lehia arloko abantailak** (gutxienez 300 karaktere).

Azaltzea, gutxienez, 300 karaktere erabilita, zein enpresa eta sektore hartzen diren lehiakide gisa, eta baita enpresak lehiakortasunaren aldetik dituen abantailak ere (teknologikoa, produktuaren edo/eta zerbitzuaren kalitatea, prezioa, salmenta osteko zerbitzua, tratu pertsonalizatua, etab.).

---

---

### 3.6 Enpresa hornitzaile nagusien xehetasuna eta haiekin lan egiteko eta harremanak izateko modua.

Adierazi zein diren enpresa hornitzaileak, eta baita enpresak haiekin dituen akordioak eta sinergiak ere (esklusibotasuna, rappelak, merkataritza-akordioak, mendekotasuna, lankidetzak, etab.).

---

### 3.7 Enpresak ba al du patenterik?

Enpresak patenterik ez badu, “ez” aukeratu. Patenteren bat izanez gero, “bai” aukera hautatu eta horri buruzko informazio gehiago eman.

---

### 3.8 Adierazi zein diren enpresak merkaturatzeko erabiltzen dituen bideak.

Enpresak merkaturatzeko erabiltzen dituen bideak aukeratzea (gutxienez bat, bat baino gehiago hautatzeko aukerarekin). Zerrendan adierazten ez den salmenta-kanal bat bada, “beste batzuk” aukera hautatu eta zehaztu.

---

### 3.9 Enpresak zelan merkaturatzen duen azaldu (gutxienez 300 karaktere).

Aurreko galderan adierazitako merkaturatzea eta salmenta-kanalak zehaztea, gutxienez 300 karaktere erabilita: zein diren kanal nagusiak eta bigarren mailakoak, zer pertsonak egiten duten merkaturatzea eta talde sustatzailea osatzen duten pertsonen zeregina, enpresa salmenta-kanal berrietan ari den lanean, lehiarekiko aldea merkaturatzeko, erabilitako marketin-mota, etab.

---

### 3.10 Arlo honi buruzko Informazio gehiago eman nahi al duzu?

Enpresak merkatuari eta merkaturatzeari buruzko informazio gehiago eman nahi ez badu, “ez” aukera hautatu. Informazio gehiago eman nahi izanez gero, hautatu “bai” aukera eta zehaztu eta zabaldu arlo horri buruzko informazioa.

---



## *Ekonomia eta Finantza Arloa.*

---

### **4.1 Azaldu eta zehaztu eskatutako finantzaketaren xedea (gutxienez 300 karaktere).**

Eskatutako finantzaketaren xedea zehaztea, gutxienez 300 karaktere erabilita: diruzaintza, inbertsioa, I+G+B, marketina, produktu edo zerbitzu berriak, nazioartekotzea, eta abar. Xede bat baino gehiago izan daitezke, eta, kasu horretan, gutxi gorabehera zehaztu beharko da bakoitzera bideratutako zenbatekoa edo ehunekoa.

---

### **4.2 Zehaztu zein den enpresaren egoera ekonomiko-finantzarioa eta diruzaintza (gutxienez 500 karaktere).**

Sozietatearen egoera ekonomiko-finantzarioa zehaztea, gutxienez 500 karaktere erabilita: diruzaintza, horren beharrak, azken gertakariak, kobrantzen eta ordainketen egoera, berankortasuna, etab.

---

### **4.3 Zehaztu taula honetan aurtengo eta hurrengo bi ekitaldietako aurreikuspenak.**

Erabilgarri dagoen taulako lauki guztiak bete (emaitzarena izan ezik, formula bidez lortzen baita), dezimal barik eta zifra guztiak zeinu positiboarekin. Enpresak diru-sarrera- edo gastu-partidarik ez badu, adierazi egin behar da, 0 bat jarrita, laukitxo ez da hutsik utzi behar.

---

### **4.4 Azaldu enpresak hurrengo bi ekitaldietarako dituen aurreikuspen nagusiak (gutxienez 300 karaktere).**

Aurreko galderan adierazitako aurreikuspenak zehaztea, gutxienez 300 karaktere erabilita, hurrengo urteetan aurreikusitako gertakari nagusiak azpimarratuz, eta baita enpresaren bilakaeraren estimazioa ere. Etorbizunean aipagarria den edozein gertaera adieraztea.

---

### **4.5 Arlo honi buruzko Informazio gehiago eman nahi al duzu?**

Enpresak ekonomia- eta finantza-arloari buruzko informazio gehiago eman nahi ez badu, "ez" aukera hautatu. Informazio gehiago eman nahi izanez gero, hautatu "bai" aukera eta zehaztu eta zabaldu arlo horri buruzko informazioa.

## → Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- 1. Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ):** Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) egiaztatzeko txartela.
- 2. % 25etik gorako kapital soziala duten bazkideen NANaren edo AIZren fotokopia, eta baita sozietatearen administratzaileena eta ahaldunena ere.** Adierazitako pertsonen NANaren edo/eta AIZren kopiak erantsi. Eskaera egiteko unean indarrean (iraungi barik) egon behar dute.
- 3. Sozietatearen eratze eskritura.** Sozietatea eratzeko eskritura publikoa osorik erantsi behar da, eta eskritura hori behar bezala gordailuta egon behar da Bizkaiko Merkataritza Erregistroan edo Euskadiko Kooperatiben Erregistroan.
- 4. Talde sustatzailea osatzen duten pertsonen curriculum vitae.** Talde sustatzailea osatzen duten pertsonen curriculum vitae erantsi, ikasketak eta esperientzia profesionala zehaztuta (curriculum vitae ez badago, idazki labur bat aurkeztu).
- 5. Itxitako azken kontabilitate-ekitaldiko galdu-irabazien kontua, 3 digiturekin.** Enpresa sortu berria bada eta kontabilitate-ekitaldi itxirik ez badu, idazki bat erantsi beharko du PDF formatuan, horren berri emanez.
- 6. Itxitako azken kontabilitate-ekitaldiko 3 digituko egoera-balantzea.** Enpresa sortu berria bada eta kontabilitate-ekitaldi itxirik ez badu, idazki bat erantsi beharko du PDF formatuan, hori adieraziz.
- 7. Aurkeztutako sozietateen gaineko azken 2 zergak. (agiri bat edo bi aurkezteko aukera).** Zerga osorik igo behar da, ez da nahikoa zergaren karatula bakarrik igotzea. Enpresa sortu berria bada eta sozietateen gaineko zergarik ez badu, idazki bat erantsi beharko du PDF formatuan, hori adieraziz. Enpresak sozietateen gaineko zerga bakarra badu (eratze-urtea dela eta), agiri hori igo beharko du.
- 8. Mailegua sartzeko eta kuotak ordaintzeko banku-kontuaren titulartasun-ziurtagiria.**
- 9. Kapital-zuriketa prebenitzeko formularioa.** Eskaera egiteko aplikazioan, Seed Capital Bizkaia Mikrok kapitalak zuritzea prebenitzeko inprimaki bat jarri du zure eskura. Inprimaki hori PDF editagarri batean dago. Eskatzaileak dokumentua

deskargatu, bete eta berriro igo beharko du lauki honetan. Dokumentu hau ez da beharrezkoa eskaera-fase honetan; izan ere, mailegua ematea onartuz gero, dokumentu hori kontratuaren polizan sartuko da, eta notariotzan sinatuko da.

- 10. Enpresaren egungo zorpetzearen xehetasuna - banku-poola.** Inprimaki hau PDF editagarri batean dago. Eskatzaileak dokumentua deskargatu, bete eta berriro igo beharko du lauki honetan.
  - “Kapital sozialaren banaketa” laukian, idatzi kapital sozialean partaidetzak dituzten pertsonen izen-abizenak eta enpresen izen soziala, eta baita partaidetza horien ehunekoa ere. Ehuneko horren baturak % 100 izan behar du.
  - “Datu eguneratuak” laukian, honako hauek adierazi behar dira: enpresak eskaera egiteko unean diruzaintzan duen zenbatekoa (bankuak eta kutxa), bezeroen zenbatekoa eta kobratu beharreko kontuak (jaulkitako fakturengatik kobratzeko dagoen kopurua) eta hornitzaileen, hartzekodunen eta ordaindu beharreko kontuen kopurua (jasotako fakturengatik ordaintzeko dagoen kopurua).
  - “Enpresaren egungo zorpetzearen xehetasuna – banku-poola” laukian, eskaera aurkezteko unean enpresak duen finantza-zorpetzea zehaztu behar da.
- 11. Enpresak bestelako dokumentazioa aurkeztu nahi al du, hala nola, negozio-planak, aurreikuspenak, eskarienezkoak, aurrekontuak, merkataritza-dokumentazioa, eskainitako produktuen eta zerbitzuen dokumentazio grafikoa, enpresaren organigrama, prentsako eta Interneteko albisteak, etab.?** Enpresak enpresari edo/eta proiektuari buruzko dokumentazio gehiago aurkeztu nahi ez badu, “ez” aukera hautatu. Dokumentazio gehiago aurkeztu nahi izanez gero, “bai” aukera hautatu eta, ondoren, egokitza jotzen den dokumentazioa igo.



Analisi-prozesuan zehar, Seed Capital Bizkaia Mikrok dokumentazio gehiago eskatu ahal izango dio enpresa eskatzaileari.



With the support of the  
European Investment Fund  
under the InvestEU Fund



INFORMAZIO GEHIAGORAKO:  
PARA MÁS INFORMACIÓN:

T.: 944 275 078  
Plaza Sagrado Corazón, 5-7º  
48011 Bilbao - Bizkaia  
scbmikro@bizkaia.eus

Edozein erreklamazio egin ahal izateko zure  
eskura duzu **scbmikro@bizkaia.eus** helbide  
elektronikoa. Azken neurri gisa, gardenta-  
sun-atari hau ere baduzu:

<https://gardentasuna.bizkaia.eus/eu/web/seed-capital-mikro>

[seedcapitalbizkaiamikro.eus](https://seedcapitalbizkaiamikro.eus)

